

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HERRITARREN PARTAIDETZAREN, GARENTASUNAREN ETA GIZARTE ETXEEN SAILA

Herritarren Partaidetza

Elkarteen Etxeetan udal-aretoak egoitza sozial gisa erabiltzen uzteko eta armairuak esleitzeko deialdi publikoaren oinarriak

Gaur egun hiru dira Elkarteen Etxeak: Rogelia de Álvaro, Itziar eta Simone de Beauvoir. Lehenengo biek 20 urte baino gehiago daramatzate martxan, eta hirugarrena 2007an jarri zen abian.

Elkarteen Etxeak hemen daude kokatuta:

Rogelia de Álvaro, Panama kalea, zenbaki gabe (Pilar auzoa).

Itziar, Zalburu plaza, zenbaki gabe (Arana auzoa).

Simone de Beauvoir¹, Ignazio Loiolakoaren kalea, 8 (Koroatzearen auzoa).

Honako baliabide hauek eskaintzen dituzte:

- Aretoak, lokal propiorik edo erakunde publiko edo pribaturen batek utzitako lokalik ez duten elkarte baten edo gehiagoren egoitza gisa erabiltzeko. Horretarako, elkarteak Gasteizko udalerrian izan behar du jarduketa-eremua, eta gizarte-, kultura- eta hezkuntza-arloko helburuak izan behar ditu.

Elkarreei egoitza sozial gisa erabiltzeko eremuak eskaintzea da helburua, haien programak eta jarduerak gara ditzaten. Aretoak banaka nahiz beste elkarte batzuekin batera erabil daitezke.

- Armairuak, egoitzarik ez duten edo horrelakorik behar ez duten elkarteentzat. Aukera honen bitartez, elkarteek tamaina txikiko materialak gordetzeko armairu bat eta gutunak jasotzeko kutxatilategi bat izango dute, baita Elkarteen Etxean sartzeko giltzak ere.

- Erabilera komuneko aretoak, bilerak, hitzaldiak eta leku handiagoa behar duten jarduerak egiteko zerbitzuekin eta baliabide teknikoekin hornituak. Aretoak Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak kudeatzen ditu, eta horiek era-biltzeko eskaera Udalaren web-orrian eskura daiteke.

2019. urte honetan, Rosa Parks erabilera komuneko aretoa (autobus-geltokiko lehen solairuan) gehitu behar zaie Etxeek eskaintzen dituzten eremu horiei. Areto horren erabilera eskatzeko izapideak eta funtzionamendua erabilera komuneko gainerako areto guztiekin batera arautuko da Elkarteen Etxeen Funtzionamendu eta Bizikidetzara Arauen 5. apartatuan (I. eranskina).

Gasteizko Udalak, lokal horien lagapena kudeatzeaz eta horiei ematen zaien erabileraren jarraipena egiteaz gain, bere gain hartzen ditu argiaren, berogailuaren, uraren eta gune komun garbiketa-gastuak. Horrez gain, funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren mantentze-lanak kudeatzen, gauzaten eta ordaintzen ditu. Gainerako gastuak elkarteen kontura egingo dira, eta horiek izango dute instalazioen erabilera egokiaren erantzukizuna.

Deialdi publikoa honako oinarri hauek arautuko dute:

1 Gaur egun, auzo-elkarteentzat eta auzo-elkarteen federazioentzat esleitura daude Simone de Beauvoir Elkarteen Etxe bi areto, Gasteizko Udalarekin egindako akordioei jarraikiz.

Dialdiaren oinarriak

1. Deialdiaren xedea

1.1. Udal Elkarteen Etxeetan (Itziar, Rogelia de Álvaro eta Simone de Beauvoir) lokalak eta armairuak erabiltzen uzteko baimenak arautzea, irabazi-asmorik ez duten eta gizarte-, kultura- eta hezkuntza-arloko sustapena helburutzat duten elkarte, elkarteen federazio eta fundazioek² —hau da, kasuan kasuko erregistroan inskribatuta daudenek— egoitza eta baliabide egokiak izan ditzaten, bakarka zein beste erakunde batzuekin batera, jarduerak garatu ahal izateko.

1.2. Erabilera honen baimena doakoa izango da, eta ez da bermerik aurkeztu beharrik izango, mota honetako erakundeek ez dutelako etekinik edo onura ekonomikorik lortzen aretoagatik.

2. Elkarteen etxeak erabiltzeko aukerak

2.1. Udal-lokalak egoitza sozial gisa erabiltzeko baimena. Beren jarduerak garatzeko areto bat behar duten erakundeentzat bideratuta dago aukera hau. Bakarka edo beste erakunde batzuekin batera erabiltzeko lekuak dira, aurkeztutako dokumentazioan egiaztatzen den erabilera-beharra- ren arabera edo erakundearen jarduerarekin lotutako beste aldagai batzuen arabera. Erakunde berari ez zaizkio areto bat baino gehiago utziko.

2.2. Armairu bat esleitzea, lokal bat etengabe behar ez duten erakundeentzat. Aukera honek tamaina txikiko materialak gordetzeko armairu bat eta gutunak jasotzeko kutxatilategi bat edukitzeko eskubidea ematen du, baita Elkarteen Etxean eta erabilera komuneko aretoan sartzeko giltzak ere.

2.3. Areto komun en erabilera. Erakunde guztiek izan dezakete horretarako eskubidea, deialdi honetan baimendun izan ala ez, noizean behineko jarduerak egiteko: bilerak, batzarrak, hitzaldiak, tailerrak eta abar. Areto komunak erabiltzeko ez da beharrezkoa izango deialdi honetan parte hartzea eta libre daudenean bakarrik erabili ahal izango dira, okupazio-egutegi baten arabera. Ezinbestekoa izango da erreserbatzeko izapidea egitea eta, erregistro-izapideak egiten ari diren edo erregistratu gabe dauden kolektiboen kasuan, kolektiboaren jarduera frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da (proiektua, estatutuak, aktak, egunkari-zatiak...). Areto komun en funtzionamenduari buruzko informazioa Elkarteen Etxeetako funtzionamendu- eta bizikidetz a-rauen 5. apartatuan dago jasota.

3. Ez dira deialdi honen xede izango

3.1. Erakundeko kideen edo patronatuko pertsonen interes partikularrei erantzuten dieten elkarteak edo fundazioak.

3.2. Areto baten jabe diren erakundeak.

3.3. Udalaren mendeko beste sail edo erakunde batek edo beste erakunde publiko edo pribatu batek utzitako lokalak egoitza gisa erabiltzeko baimena duten erakundeak.

3.4. Onespen-, sartze- edo partaidetza-sisteman berdintasun-printzipioa betetzen ez duten erakundeak —salbu eta, sexu bakarreko kideek osatutako erakundeak izanik, helburu nagusia gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea edo emakumezkoen nahiz gizonezkoen berriazko interesak eta premiak sustatzea bada— edo haien helburuak, funtzionamendua, ibilbidea edo jarduketa berdintasun-printzipioaren edo genero-berdintasunaren arloan indarrean den araudiaren kontrakoak direnean.

3.5. Sexu- eta/edo genero-arrazoiek eragindako bereizkeriagatik edo funtsezko berdintasun- eta askatasun-eskubideak urratzeagatik administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten erakundeak.

² Merkataritza-sozietateetan parte hartzen ez duten eta 9/2016 Legean (ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa) xedatutakoa betetzen duten fundazioak, dagokion erregistroan inskribatuta daudenak.

3.6. Kirolarekin lotutako helburuak dituzten erakundeak.

3.7. Erlijioarekin lotutako helburuak dituzten erakundeak.

3.8. Irabazi-asmoak dituzten erakundeak.

3.9. Merkataritza-sozietateetan parte hartzen duten eta/edo 9/2016 Legean (ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioei buruzkoa) xedatutakoa betetzen ez duten fundazioak.

3.10. Helburu profesionalak dituzten erakundeak.

3.11. Alderdi politikoak, sindikatuak eta horiekin lotutako erakundeak edo fundazioak.

4. Betekizunak

4.1. Lokal horiek erabiltzeko interesa duten erakundeek honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

a. Kasuan kasuko erregistroetan izena emanda egotea (Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Nagusian, Barne Ministerioaren Elkartearen Estatu Erregistroan, fundazioen, Eusko Jaurlaritzaren Fundazioen Erregistroan, edo Fundazioen Estatu Erregistroan).

b. Gizarte-, kultura- eta hezkuntza-arloekin lotutako helburuak eta jarduerak dituzten erakundeak izatea.

c. Helbide soziala edo delegazioa Gasteizen izatea.

d. Elkartearen Etxeak erabiltzeko baldintzak eta erabilera- eta bizikidetzara- arauak onartzea, erakunde eskatzailearen legezko ordezkariak sinatutako konpromisoaren bitartez.

e. Oinarri hauetako 6. apartatuan ("Eskaerak eta agiriak") eskatutako agiri guztiak behar bezala beteta aurkeztea.

f. Antolakuntza, teknika eta finantzaketa aldetik bideragarritasuna izatea aurkeztutako proiektua garatzeko, betiere Elkartearen Etxeek eskaintzen dituzten baliabideak kontuan izanik.

5. Eskaerak eta agiriak

5.1. Lokalak egoitza sozial gisa erabiltzeko eta armairuak esleitzeko eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a. 1. eranskina: Eskaera-orria.

b. 2. eranskina: Memoria eta proiektuaren aurkezpena.

c. 3. eranskina: Jarduera mota eta eremuaren premiak. Eskatutako aretoa erabiltzeko premiak, egutegiak eta laneko ordutegiak zehaztuz. Ordutegi horren bitartez, Udal Zerbitzu Teknikoentzat errazagoa izango da lokalak erakundea baimendunen artean banatzea eta erabilaren jarraipena egitea.

5.2. Erakundeari buruzko agiriak.

a. Erakundearen estatutuak edo funtzionamendu-arauak, eta erakundea eratu zen urtea.

b. Kasuan kasuko erregistroetan izena emanda egotea (Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Nagusian, Barne Ministerioaren Elkartearen Estatu Erregistroan, fundazioen, Eusko Jaurlaritzaren Fundazioen Erregistroan, edo Estatuaren Fundazioen Erregistroan).

c. Elkartearen kasuan, elkartearen legezko ordezkariaren zinpeko aitortpena. Bertan, Bazkideen Erregistro Liburuan ageri den kide kopurua adierazi behar da, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean zehazten diren eskakizunei jarraikiz.

d. Elkartearen federazioen kasuan, legezko ordezkariaren zinpeko aitortpena. Bertan, federazioa osatzen duten elkartearen kopurua adierazi beharko da.

e. Fundazioen kasuan, Patronatuaren edo horretarako eskumena duten patronatuko kideen zinpeko aitortpena. Bertan argi eta garbi adierazi beharko da fundazioak ez duela parte hartzen merkataritza-sozietateetan.

5.3. Lokalaren beharra egiaztatzeko agiriak.

a. Eskatutako lokalaren beharra justifikatzea, arrazoiak eta helburuak azalduz.

b. Legezko ordezkariaren zinpeko aitortpena, erakundeak jabetzan lokalik ez duela edo lokalak egoitza sozial gisa erabiltzen ez dituela adierazten duena, beste sail batzuen edo erakunde publiko nahiz pribatuen bitartez.

5.4. Jarduerari dagokion dokumentazioa.

a. 2018. urteko balantze ekonomikoa.

b. Fundazioen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan urteko kontuak aurkeztu ez dituzten fundazioen zerrendan ez dagoela egiaztatzen duen agiria.

5.5. Gasteizko Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du beharrezkotzat jotzen diren agiriak aurkez daitezela, erakundeak aurkeztutako datuak benetakoak direla egiaztatzeko.

5.6. Deialdiarekin lotutako zalantzarik edo kontsultarik izanez gero, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak bi bilera egingo ditu deialdian parte hartu nahi duten erakundeekin. Horrez gain, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzura jo daiteke, Frai Zacarias Martinez kaleko 3. zenbakian edo 945 161687 zenbakiaren bitartez. Bileretan nahiz beste bitarteko batzuen bidez helarazitako informazio garrantzitsu guztia herritarren postontzi batean gordeko da, Udalaren web-orrian.

6. Epea eta agiriak aurkezteko bideak

6.1. Eskaerak aurkezteko epeak, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik 2019ko urriaren 18ra arte iraunduko du.

6.2. Aurrez aurre. Agiriak Gasteizko Udalaren Informazio eta Erregistro Bulegoan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25) edo Herritarrentzako Arreta Bulegoetan aurkeztu daitezke.

- Euskarri digitalean: agiriak euskarri digital bidez aurkeztu ahal izango dira, USB memoria, CD, DVD edo antzeko beste sistema batzuk erabilita. Euskarri horrek beharrezko fitxategi grafikoak eta/edo testu-fitxategiak izan behar ditu (PDF formatuan) eta ez du karpetarik izango, agiriak baizik, maila bakar batean.

Euskarri digitalean aurkeztu nahi den dokumentazioarekin batera, agiriak formatu digitalean entregatu direla jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpenaren inprimakia aurkeztu beharko da (Udalaren web-orrian deskarga daiteke). Erakundeko ordezkari batek sinatu beharko du eskaera.

- Paperean aurkeztuko diren agiriek DINA4 edo DINA3 tamaina izan beharko dute eta, aurrez aurreko arreta-postuan digitalizazioa errazteko, orri solteetan aurkeztu behar dira, graparik, klipik edo antzekorik gabe.

6.3. Egoitza elektronikoaren bitartez. Eskaera eta gainerako agiriak online erregistratu ahal izango dira Erregistro Elektronikoaren zerbitzuaren bitartez. Horretarako, identifikazio digitaleko txartel bat erabili behar da, <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org> helbidean zehazten den moduan.

6.4. Eskabideari erantsi beharreko agiri guztiak aurkeztu ez badira edo agiri osagarriren bat behar bada, eskatzaileari 10 eguneko epea emango zaio okerrak zuzentzeko. Hala egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da.

7. Aretoak egoitza sozial gisa erabiltzen uzteko eta armairuak esleitzeko irizpideak

7.1. Jarraian deskribatzen diren irizpideak oinarritzat hartuta balioetsiko dira lokalak egoitza gisa erabiltzen uzteko eta armairuak esleitzeko eskaerak, eta 111,8 puntu emango dira guztira,

adierazitako guztiaren arabera. Lokala edo armairua erabili ahal izateko ez da beharrezkoa izango gutxieneko puntu kopuru bat izatea. Aretoak eta armairuak lortutako puntuazioaren arabera esleituko dira, puntu gehien dituztenetik puntu gutxienean dituztenera, areto erabilgarri guztiak bete arte. Puntu gutxiago izateagatik lokalik edo armairurik gabe geratu diren erakundeak itzarote-zerrenda batean sartuko dira, 9. puntuaren arautzen dena:

a. Justifikazioa eta koherentzia.

- 2018an egindako proiektuaren justifikazioa.

Gehienez 2 puntu.

- 2018ko Proiektuak hiriko gizarte-errealitatearekin, zerbitzu erabilgarriekin eta udal-planekin duen koherentzia.

Gehienez 2 puntu.

Gehienez 4 puntu.

b. Erakundeak Gasteizko hirian eta herritarrengan duen eragina.

- Elkartutako pertsona kopurua:

– 1-10 kide: puntu 1.

– 11-30 kide: 2 puntu.

– 31-50 kide: 3 puntu.

– 50 kide baino gehiago: 4 puntu.

- * Federazioen kasuan, elkartutako erakunde kopurua:

– 1-5 elkarte: puntu 1.

– 5-10 elkarte: 2 puntu.

– 10-15 elkarte: 3 puntu.

– 15 elkarte baino gehiago: 4 puntu.

- Erakundearen antzintasuna:

– 2-5 urte: puntu 1.

– 5-10 urte: 2 puntu.

– 10-15 urte: 3 puntu.

– 15-20 urte: 4 puntu.

- Erakundeak bere lana jakitera emateko erabiltzen dituen bitartekoak:

– Erakundeak 2018an zehar egin duen helburu, proiektu, jarduera eta abarren hedapena.

(Erakundearen hedabideen deskribapena, helburuen eta jardueren hedapena, argitalpen, web-orri, kartel, aldizkari, panfleto, hitzaldi, mintegi, sare sozial, prentsa, irrati eta abarren bitartez).

Gehienez 3 puntu.

- Euskararen erabilera hedapenean eta jardueretan.

Gehienez puntu 1.

• 2018an egindako komunitateko edo erakundeko jarduerak (hiriko eta auzoetako jaialdietan, mota guztietako urteurrenetan, ospakizunetan eta abarretan).

- Jarduera 1: puntu 1.
- 2 jarduera: 2 puntu.
- 3 jarduera edo gehiago: 3 puntu.

Gehienez 3 puntu.

• Parte-hartzea hiriko organo formaletan (Elkarguneetan, Auzoguneetan, Gizarte Kontseiluan) eta ez formaletan (mahaiak, lantaldeak).

- Organo 1: puntu 1.
- 2 organo: 2 puntu.
- 3 organo edo gehiago: 3 puntu.

Gehienez 3 puntu.

Puntuazio hori lortzeko, erakundeek 2016-2019 aldian deitutako saioen ehuneko 50etara joan behar izan dute gutxienez.

Gehienez 22 puntu.

c. 2018an zehar sareetan egindako lana eta hiriko komunitate- eta elkarte-dinamiken sustapena.

• Erakundeak parte hartzen duen hiriko kolektiboen, elkarten edo interes-taldeen zerrenda.

- Kolektibo, elkarte edo talde 1: puntu 1.
- 2 kolektibo, elkarte edo talde: 2 puntu.
- 3 kolektibo, elkarte edo talde, edo gehiago: 3 puntu.

Gehienez 3 puntu.

• Hiriko gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta/edo elkarte-sarearekin batera egindako jardueren programazioa.

- Jarduera 1: puntu 1.
- 2 jarduera: 2 puntu.
- 3 jarduera edo gehiago: 3 puntu.

Gehienez 3 puntu.

• Gizarte-mobilizazio komunitarioko dinamiken zerrenda.

Garatu al dira gizarte-aldaketa bat sustatzeko moduko ekintzak eta/edo jarduerak, arrazoi jakin baten alde edo kontra? Sortzen al dira sendotze kolektiborako dinamikak giza eskubideak defendatzeko edo gizarte-arloko gaiak aldarrikatzeko?

- Ekimen edo jarduera 1: puntu 1.
- 2 ekimen edo jarduera: 2 puntu.
- 3 ekimen edo jarduera, edo gehiago: 3 puntu.

Gehienez 3 puntu.

• Berrikuntza eta lankidetzaren udalerriko gizarte-erronkak ebazteko orduan.

Gehienez 3 puntu.

Gehienez 12 puntu.

d. Aniztasuna, interseksionalitatea eta parte-hartzearen hobekuntza.

- Pertsonen artean entzutea, elkarlanean jardutea eta elkar ulertzea sustatzen duten estrategiak garatzen ditu (belaunaldien arteko jarduerak, soziabilitate-eremuak, zailtasunak bizitzen ari diren gizarte-sektoreak erakartzeko jarduerak, memoria berreskuratzea...).

Gehienez 2 puntu.

- Erakundeak estrategiak garatzen ditu kolektiboen edo taldeen barneko eta kanpoko parte-hartzea errazteko eta hobetzeko, tradizioz, eta hainbat arrazoi direla-eta, horiek herritartasun aktiboa gauzatzen ez dutenean (etorkinak, zaharrak, gazteak...).

Gehienez 2 puntu.

- Erakundeak genero-berdintasuna³ sustatzen duten estrategiak garatzen ditu eta ikuspuntu interseksionala⁴ txertatzen du bere programetan, jardueretan eta ekintzetan.

Gehienez 2 puntu.

- Erakundeak kontziliaziorako zerbitzuak, bitartekoak edo neurriak jartzen ditu martxan.

Gehienez 2 puntu.

Gehienez 8 puntu.

e. 2020an garatu nahi den proiektua.

- Egin nahi den proiektuaren justifikazioa, horretarako arrazoiak, premiak, gatazkak, problematikak eta hura sustatzen duten beste egoera batzuk azalduz.

- Proiektuaren xedearen eta helburuen deskribapena.

- Pertsona hartzaileak eta/edo onuradunak.

- Zehaztutako helburuak lortzeko egin behar diren jarduerak (bilerak, kanpainak, ekitaldiak, hitzaldiak, erakusketak, prestakuntza, pertsonentzako arreta, ikerketa...). Era berean, horiek egiteko datak, pertsona hartzaileak edo onuradunak, eta bertaratuko diren pertsonen aurreikuspena zehaztuko dira.

- Proiektuaren justifikazioaren, lortu nahi diren helburuen eta proposatutako jardueren arteko koherentzia eta egokitasuna, helburuak lortu ahal izateko.

- Lortutako emaitzak eta helburuak neurtzeko ebaluazioaren diseinua.

Gehienez 20 puntu.

f. 2020an garatuko den proiektuak izan dezakeen erabilgarritasun soziala, intzidentzia, eragin positiboa eta oihartzuna. Honako hauen bitartez neurtuko da:

- Gasteizko udalerrria, esku hartzeko eremu gisa.

- Hiriko errealitate sozialarekin, zerbitzu erabilgarriekin eta udal-planekin koherenteak diren helburuak eta ekintzak.

3 Gasteizko Genero Berdintasunerako IV. Planean oinarrituz definitu dugu genero-berdintasunaren kontzeptua; izan ere, oinarrian patriarkatua eta heterosexismoa dauzkaten diskriminazioei aurre egiten dieten pertsona guztiak hartzen ditu subjektu politikotzat.

4 Interseksionalitateak azaltzen du, sexuaz gain, diskriminazioa eragiten duten egiturazko beste iturri batzuk daudela (adina, aniztasun funtzionala, maila sozioekonomikoa, egoera administratiboa, sexu- eta genero-aniztasuna, jatorria, etnia eta abar) eta iturri horiek elkarreaginean jarduten dutela. Hortaz, pertsonak eta beren identitateak baldintza ugari zeharkatzen dituztela ulertu behar da, eta baldintza horiek ezin daitezkeela bereizita aztertu.

– Jarrera komunitarioen sustapena (konfiantza, harremanak eraikitzea, tolerantzia, lankidetzeta, memoria berreskuratzea).

– Berrikuntza eta lankidetzeta udalerriko erronka sozialak ebazteko orduan (gizarte-arazoaren prebentzioa edo laguntza, gizarte-bazterkeriaren kontrako borroka edo gizarteratzearen aldeko lana).

– Genero-berdintasuna sustatuko duten estrategiak garatzea, eta programetan, jardueretan eta ekintzetan ikuspuntu interseksionala txertatzea.

– Eragin positiboa gizartearen.

Gehienez 20 puntu.

g. Erakunde handien edo dagoeneko finkatuta dauden erakundeen eta egoera ezegonkorragoetan dauden erakundeen artean egon daitezkeen desberdintasunak orekatzeko helburuarekin, erakundeek dituzten diru-sarreraren arabera haztapen-koefiziente bat aplikatuko dugu:

– Haztapen-indizea mikro-erakundeen kasuan (0-10.000 euro): 1,3.

– Haztapen-indizea erakunde txikien kasuan (10.000-100.000 euro): 1,2.

– Haztapen-indizea erakunde ertainen kasuan (100.000-300.000 euro): 1.

Azken puntuazioa lortzeko, haztapen-koefizientearekin biderkatuko da aurreko apartatueta lortutako puntu guztien batura.

8. Deialdiaren instrukzioa eta ebazpena

8.1. Behin eskabideak jaso eta eskatutako betebeharrak bete direla egiaztatu ondoren tramiterako onartu direlarik, balioesteko txosten teknikoa eta ebazpen-proposamena idatziko dira oinarrietan ezarritako irizpideen arabera.

8.2. Udal teknikariek osatuko dute organo instrukzio-egilea, eta horrek ofizios egingo ditu ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro.

8.3. Aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzeko, balioespen-batzorde bat eratuko da, dagokion udal zerbitzuko teknikariek osatutakoa. Ebazpen-proposamen banakatua egingo dio batzorde horrek ebazteko eskumena duen organoari.

8.4. Tokiko Gobernu Batzarra da deialdia onetsi eta ebazteko organo eskuduna.

8.5. Ebazpen horren kontra berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio erabakia hartu duen organo berari, hilabeteko epean, argitalpena ALHAOn agitaratzen denetik kontatuta, edo zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

8.6. Prozedura ebazteko epea sei hilabetekoa izango da gehienez, argitalpena ALHAOn agertzen den egunetik kontatzen hasita. Epe horren barruan ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

8.7. Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraituz, dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena jakinarazteko komunikabideak ALHAO eta Gasteizko Udalaren iragarki taula izango dira.

9. Itzarote-zerrenda

9.1. Tokiko Gobernu Batzarreko ebazpenean, itzarote-zerrenda bat ezarriko da. Betekizunak bete arren, Elkartearen Etxeetan lekuri gabe geratu diren erakundeak agertuko dira zerrenda horretan, etxeetan leku hutsak geratu ahala, sartzeko aukera izan dezaten.

9.2. Zerrenda horretan, deialdian lortutako puntuen arabera antolatuko dira erakundeak, puntu gehien lortu dituen erakundetik gutxien lortu dituenera, eta puntu gehien dituztenak jarriko dira lehen postuetan.

9.3. Etxe batean lekuren bat libre geratuz gero, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzua zerrendako erakundeekin jarriko da harremanetan, leku hori har dezaten. Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak zehatz-mehatz jarraituko du itxarote-zerrendako ordena.

10. Aretoak erabiltzeko baimenaren eta armairuen esleipenaren iraupena

10.1. Erabiltzeko baimenak eta armairuaren esleipenak bi urteko iraupena izango dute eta 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko dira zenbatzen. Dena den, baimena beste bi urtez luzatu ahal izango da, lau urtera arte gehienez; hala ere, horiek baliogabetu egin ahal izango dira, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92.4. artikuluan araututakoari jarraituz.

10.2. Erabiltzeko baimena edo armairuaren esleipena eman eta lehen bi urteak igaro ondoren, horiek luzatu egin ahal izango dira Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuko teknikariek aldeko txostena eginez gero, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuko teknikariek erakunde bakoitzarekin adostutako proiektuaren jarraipenaren eta ebaluazioaren arabera. Ebaluazioari esker errazagoa izango da zehaztea eskatutako lokalaren premia mantentzen dela.

10.3. Gehienezko iraupen-epaia amaitzean, luzapena barne, beste baremazio-prozesu bat egin beharko da, xede horrekin onartutako oinarriak kontuan hartuta.

11. Lokala erabiltzeko baimena eta armairuaren esleipena galtzea

11.1. Erakundeari lokala edo armairua erabiltzeko eskubidea kentzeko arrazoiak:

a. Elkarteen Etxeak erakundearen berriazko jardueretarako ez erabiltzea.

b. Erakundea desagitea.

c. Erakundeek erabiltzeko baldintzak eta Elkarteen Etxeen erabilera- eta bizikidetzara- arauak ez betetzea.

d. Lagatako eremuak aldi-aldi eta etengabe ez erabiltzea. Horregatik, eta bereziki egoitza sozial gisa erabiltzeko baimenen kasuan, Gasteizko Udalak beharrezko egiaztapenak egin ahal izango ditu, aurkeztutako dokumentazioan adierazitako ordutegia kontuan hartuta. Lagatako lokala esandako ordu-tegian jendearentzat irekita ez dagoela behin baino gehiagotan ikusiz gero, eta Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuari horren berri eman ez bazaio, era-bileraren baimena baliogabetu egin daiteke; hori arauzko bideetatik jakinaraziko da.

e. Eskatutako lokalaren premia justifikatzen duten arrazoiak galtzea, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak erakundearekin adostu duen proiektuaren jarraipenari eta ebaluazioari jarraituz, 10.2. puntuan jasotzen den moduan.

f. Eraso edo diskriminazio matxistengatik eta aniztasun funtzionalaren, jatorriaren edo giza eskubideen kontrako beste alderdi batzuk urratzeagatik administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten erakundeak.

g. Terrorismoaren biktimei aitortzea eta erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legean xedatutakoa ez betetzea, 4 b) artikuluan jasotakoa batez ere.

h. Borondatez uko egitea.

i. Interes publikoagatik alde bakarreko baliogabetze kasuetan, betiere Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92.4. artikuluan araututakoaren arabera.

12. Elkarteen Etxeak erabiltzeko baldintzak

12.1. Elkarteen Etxeetako lokalak erabiltzeko baimena eta armairuaren esleipena eskuratzen duten erakundeek, Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen Saileko ordezkari zinegotziak egindako ebazpenaz onartutako erabilera- eta bizikidetzara- arauak onartu eta bete beharko dituzte, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92. artikuluko 7. apartatuan ezarritako betebeharrak alde batera utzi gabe.

12.2. Baimena doakoa izango da, eta ez da bermerik aurkeztu beharrik izango.

12.3. Udalari dagokio lokala onik zaintzea, eta hobekuntza edo aldaketak egitea. Halakorik behar izanez gero, eskabide arrazoitua egin beharko da, eta aurreikusitako diru-kopurua adierazi. Udalak, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak hala proposaturik, bideragarritasuna aztertuko du, eta garaiz eta idatziz erantzungo, horiek gauzatzerik dagoen, baita ekimenaren ondorio ekonomikoak ere. Edonola ere, ez da baimenduko eraikinean edo bertako edozein gelatan obrarik egitea, ez bada udalak berariazko baimen idatzia emanda.

12.4. Erakundeek aretoaren mantentze eta itxura egokia zaindu behar dute. Baimenaren epea bukatzen denean, aretoa emandako egoera berean bueltatuko dute.

12.5. Erabilera-baimena edo lagapena zergetatik —OHZ, zaborrak— salbuetsita egongo da, eta argindar- nahiz gas-kontsumoa Udalaren kontura izango da, baita ur-kontsumoa ere.

12.6. Ondasuna erabiltzeko nahiz bertan jarduerak egiteko behar diren lizentzia eta baimenak oro alde aurretik eskuratzeko konpromisoa hartu beharko dute elkarteek beren gain.

12.7. Elkarteek beren gain hartu beharko dute lokala okupatzearen ondoriozko erantzukizuna, eta beren jarduerak hirugarrenei eragin liezazkiekeen kalteen aurrean erantzun. Lokala erabiltzeko baimena eman edo hura lagatzera mugatzen da Udala, eta ez du egite edo ez-egitearen ondorioz lokalean gerta litekeen kalte material edo pertsonalen gaineko erantzukizun bere gain hartuko, ez zuzenean ez modu subsidiarioan, elkarteari baitagokio erantzukizun zibileko aseguruia kontratatzea, eta baimen edo lagapenak iraun bitartean indarrean edukitzea. Gasteizko Udalak aseguratu gehigarriaren izaera izango du, horregatik hirugarrenaren izaera galdu gabe.

